

LOKAMUTS BATEN KONTAKIZUNA



ESAN GABE NEUKANA

Egilea: Agurtzane Juanena Alustiza.
Argitaletxea: Elkarlanean.
Orriak: 120.
Testuen edizioa: Koldo Izagirre.
Hitzaurrea: Xabier Mendiguren Elizegi.
Data: 2003ko azaroa.
Salneurria: 10,50.

Hemen ni egoteko arrazoia da Agurtzane nire ikaslea izan zela behiala filosofian. Gero, denborarekin, adiskideak gara, asko estimatzen duan pertsona da. Eta bere liburua ezagutzen dut. Benetan, testu hunkigarria da. Itxuraz oso simple idatzia, oso txukun, kasik apal. Sensibilitate feminino fin bateko saioa da. Inolako kirriska politiko edo ideologikorik gabea: liburua dokumentu humano harrigarri bat da eta pitxi literario txiki bat.

Edukiaren aldetik, Agurtzane Juanenak kontatzen duena beste tortura historia bat da. Baina kasu honetan bere historia pertsonala da hori: ETako neska bat, atxilotua eta torturatua izandakoa. Lagunen izenak ez ematearren bere burua leihotik botatzen du. Dorpeki zauritua, ospitalera darama poliziak, zainketara.

Torturen lekukoak Euskal Herrian asko daude zoritzarrez. Baina hori ez da polizia-etxean hamaika aldiz gertatutako beste txosten bat baino. Txosten bat ere apenas da. Liburuari interes handiena ematen diona, neska baten aitortza pertsonal bihurtzen duena, torturatua izan denaren autoanalisi etengabea eta gogoeta da, kontakizunaren barruan tartekatuz doana testuan, denbora desberdinetan. Ez dugu zer egiten dioten irakurriko berak zer bizi duen baizik: torturatzen zutenean sentitzen eta gogoetatzen zuena, bere beldurak eta hauskortasuna, bere zalantzak eta, ordukoak gogoratuz, orain sentitzen eta gogoetazten duena, idazten ari denean. Torturatua bere barruan ispluan ikusiko dugu. Bere kezka moralak, ahultasuna, ikaraturik poliziengan berengan bilatzen duen ulermena eta errukia, puritanismoaren antzeko tinkotasun bat, berak ere ulertzen ez duen ezinegona eta indarra momentu berean.

Torturatua izan denaren bizitza isila, gero, Nafarroako herrixka batean maistra, bizitzaren bila, bizitzari ihesi, ahaztu ezin eta esan ere ezinik. Dena emoziorik gabe gogoratuta ka-

sik, jada sentituko ez balu bezala. Hainbat ebakitzaileago sartzen zaiguna guri barruraino.

Hainbat alderdi legoke irakurlearen arreta deitzekoa; nik bat nabarmenduko dut, nabaria delako liburuan bertan. Zergatik ez dago bere gaur hemen gurekin? Zeresanik ez omen daukala esan zaigu, baina hori ez dela egiazko arrazoia badakigu denok. Galdera da: nola bizi da torturatua bere torturarekin?

Hasteko, torturatuarentzat tortura inoiz ez da iragan bilakatzen, presente dago beti. Bere bizitza eta bere nortasuna bilakatu da. Zergatik? Nire ustez, batetik, torturak txikitu egin duelako pertsona. Norberak ikusten du ez dagoela bere esku norbera izatea. Pertsona gisa tratatua izateak egiten gaitu pertsona, baina hain zuzen behar gehien dagoen tokian eta orduan, ez gara pertsona. Orain jada pertsona hori ez dago eta ezin da seguru egon, beti eta nonahi pertsona izanda ere. Ez da. Toki batzuetan ez dala inor. Edozein unetan berriz ere ez da inor izango. Hori bizi izan du. Hori da. Baina, gero, bigarrena

Agurtzane Juanena

legazpiarra 1975ean

atxilotu eta

torturatu zuen

Guardia

Zibilak.

Hogeita bost urte

geroago, bere

esperientzia liburu

batean jaso du.

Joxe Azurmendi

idazleak lan horren

edukia eta

egilearekin

duen harremana

azaldu du.


Joxe AZURMENDI

iruditutako berari, hala dio. «Besteak jakiten badu, 'egiagoa' da», dio azken aldera berritua. Torturatuak berak ulertu, sinetsi ezin duen esperientzia da tortura.

Hori guztia alderdi pertsonala da, intimoa, eta inportantea da denontzat torturatuaren bizipen pertsonala ezagutzea. Eskerrik asko Agurtzaineri.

Tortura ez da trafikoko legehautea. Gizartearen ukazioa da. Piztien basagizarte demokratikoa da. Horregatik beste alderdi bat nahi nuke aipatu, bukatzeko: publikoa. Kontatu didate torturatu bati, Parlamentuko batzordean bere esperientzia azaldu eta, politikari batek erantzun omen ziola: «nik sinesten dizut zuri, baina sinesten diot Guardia Zibilari ere». Kito. Halakoari torturatuak hau esan ahal eta esan behar lioke: «medez, ez iezadazu ezer sinetsi! Zu ez zaude ez niri eta ez Guardia Zibilari ezer sinesteko.

Salaketak baldin badaude, ikertzeko eta argitzeko zaude zu. Ikertu eta argitu ezin baduzu, bilatu erantzuleak, eta egin egin behar duzuna, gutxienez



Juanito EGANIA | ELKAR ARGITALETXEA

dago: hori bizi du, baina ezin du esan. Nolabait esan, ezinezkoa da hitzetan. Konta dezake, «hau eta hori egin didate». Baina hori kanpoko historia da. Barruko historia beste kontu bat da, ezin da esan. Uste dut jende askok horregatik izaten duela nahiago bere tortura ez kontatu eta barruan gorde.

Izan ere, torturaren hurrengo egunean, bidegabekeria da eguzkiak beti bezalaxe argitzea; ikaragarria da, jendea beti bezalaxe joatea lanera, jolasera. Barruko historia hori -torturatuaren zalantzak bere buruan, damuak, lotsak, justizia eskeko garrasi isila- ezin da esan. Ez esanez, besteentzat ez dela existi-

titzen ematen du. Besteentzat ez existituz, berak bakarrik dakien jakite irreal bilakatzen da torturatuarentzat berarentzat. Badaki lagunak daukela, hitz egin nahi luke eta esan. Baina nirea bakarrik den hizkuntzan, nirea bakarrik den esperientzian, ezin da inorekin hitz egin.

Liburu honetan Agurtzanek arimaren barru-barruko zirgilo hori apurtu du. Bere torturaren historia kontatzen digu, barrukoa, gurea ere izan dadin, berarentzat erreala izateko.

Sinesgaitza, baina halaxe da. Hogeita bost urte isilik eduki eta gero utzi dizkio lehenengo aldiz paperok lagun bati. Bestek ezagututa, dena «errealago»

zure ezina salatu eta zergatik den ezinezkoa. Zalantza ez da aitzakia. Nik ezin badut nire torturatuarentzat berarentzat, ez naiz ni horren erantzulea.

Baina badaude erantzuleak, zu zeu horien artean. Zu ez zara errugabea. Tortura dagoela, nahi izanez gero zuk zalantza egin dezakezu, nik ezin dut zalantzarik egin. Ni, tortura bada goela esateko nago; zu, hori ez egoteko zaude.

Horrelako politikariekin, zalantza gutxi, Espainian ez da berriz ere torturarik egongo, baina bai torturatuak. Agurtzane eta Martxelo bezala. Lehen frankismoan bezala orain demokrazian.■